



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko uztailaren 4a

76. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen klase pasiboen pentsioak gaurkotzen dituen. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Legea, Taxiari buruzko uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

—Foru Legea, Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).

—Foru Legea, Nafarroan etxebizitzarako eskubidea ziurtatzeko neurri urgenteei buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (11. or.).

—Foru Legea, erosahaltenaren galera dela-eta 2012rako eraginarekin aldi baterako osagarri pertsonal bat sortzen duen abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (22. or.).

—Foru Legea, Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen ehuneko 0,7 arautzen duen ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (23. or.).

—Foru Legea, Murillo el Frutoko Udalaren 159.224 metro koadroko herrilurraren desfektazioaren onura publikoa adierazi eta hura onesten duen ekainaren 24ko 7/2004 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (24. or.).

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Administrazio Publikoetan funtzionarizazio prozesu berri bat abian jartzeari buruzko Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak bazter utzia (25. or.).

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 132. artikulua eta II. tituluko VIII. kapitulua aldatzen dituen. Osoko Bilkurak aintzat hartua (25. or.).

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legea partzialki aldatzen duena. Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztu dute (26. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen klase pasiboen pentsioak gaurkotzen dituenak.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2013ko ekainaren 27an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen klase pasiboen pentsioak gaurkotzen dituen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2013ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen klase pasiboen pentsioak gaurkotzen dituenak**

Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen 25.2 artikulua ezartzen duenez, pentsioen zenbatekoa urtero gaurkotuko da Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko foru legeak ekitaldi ekonomiko bakoitzerako ezartzen duen portzentajearen. Gai horretan, aintzat hartu beharra dago 2013. urterako ez dagoela Nafarroako aurrekontu orokorren foru legerik, Nafarroako Parlamentuak, 2012ko azaroaren 22an eginiko Osoko Bilkuran, erabaki baitzuen atzera botatzea Nafarroako Gobernuak aurkeztutako proiektua, zeinak jasotzen baitzuen aipatutako gaurkotzea.

Hortaz, bidezkoa da foru lege bat onestea, haren bidez gaurkotzeko Nafarroako administrazio publikoen montepioetako klase pasiboen pentsioak 2013. urtean. Horretarako, erreferentzia gisa hartzen da aurten pentsio publikoek oro har izan duten igoera, halaxe jasotzen baita Estatuko 2013ko Aurrekontu Orokorren abenduaren 27ko 17/2012 Legearen 43. artikuluan, Gizarte Segurantzaren sistema sendotu eta bermatzeko neurriak buruzko azaroaren 30eko 28/2012 Errege Lege-

dekretuaren bigarren xedapen gehigarriari dagokion bezainbatean.

Foru lege honetan jasotako gaurkotzean aurreikusirik daude tratamendu berariazkoa behar duten zenbait egoera, besteak beste alargun eta umezurtz pentsio gutxienekoak, araudi indardunean ezarritik baitago haietarako lanbide arteko gutxieneko soldata hartuko dela erreferentzia gisa. Era berean, pentsio publikoen arloan indarra duen araudia aplikatuz, ezarri da pentsioak ez direla gaurkotuko baldin eta, berez edo onuradun berak jasotako beste pentsio publikoekin batera, pentsio publikoetarako oro har ezarritako urteko gehieneko zenbatekoa gainditzen badute.

**Artikulu bakarra.** Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen klase pasiboen pentsioak gaurkotzea.

1. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera ondorioak izateko, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen klase pasiboen pentsioek, araudi indardunari jarraituz gaurkotzeko eskubidea dutenek, ehuneko 1eko igoera izanen dute, salbu eta urtean 14.000 eurotik beherakoak direnak, horiek ehuneko 2ko igoera izanen baitute.

2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, alargun eta umezurtz pentsio gutxienekoak araudi indardunean ezarritako erreferentziari lotuko zaizkio, lanbide arteko gutxieneko soldatari alegia.

3. Gaurkotzea ez zaie aplikatuko pentsioei, dagoeneko onarturik egon nahiz etorkizunean onartuko direnei, baldin eta, berez edo onuradun berak jasotako beste pentsio publiko batzuen zenbatekoa gehituta, pentsio publikoetarako ezarritako urteko gehieneko zenbatekotik gorakoak badira.

**Azken xedapenetako lehena.** Erregelamendu bidezko garapena.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau aplikatu eta garatzeko behar diren arauak eman ditzan.

**Azken xedapenetako bigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, eta ondorio ekonomikoak 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu.

---

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Legea, Taxiari buruzko uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legea aldatzen duena.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2013ko ekainaren 27an egindako Osoko Bilkuran, Taxiari buruzko uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2013ko uztailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **Foru Legea, Taxiari buruzko uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legea aldatzen duena**

#### **ZIOEN AZALPENA**

Nafarroako Parlamentuak Taxiari buruzko Foru Legea onetsi zuen 2005ean. Lege horrek zenbait arlo landu zituen –besteak beste, taxiaren egoera Iruñean eta Iruñerrian, bai eta Nafarroako gaineko tokietan ere, mugikortasun urriko pertsonentzako arretaren hobetzea, taxiaren erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak–, guztiak ere herritarrei zerbitzu egokia ematen zaiela bermatzen dutenak.

Eguneroko praktikarekin, egiaztatu da zenbait alderdi gaurkotu egin behar direla: lizentziatarako bisak, zerbitzua kontratupeko langileekin ematea, ibilbide-liburua, ibilgailuen berriztatzea, zehapen-arabidea eta abar.

Gainera, 2010eko maiatzean, Bide Segurtasunari buruzko Lege berriak indarra hartu zuen Estatuan, eta berariazko eskakizun batzuk ezarri zituen, aipatutako foru legean sartu behar direnak. Aurrekoa dela eta, foru legea estatuko legediari egokitzeko eta Nafarroako taxi zerbitzua hobetzeko, Taxiari buruzko Foru Legea aldatzen da.

**Artikulu bakarra.** Foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrerako ondorioekin, jarraian ematen diren Taxiari buruzko uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legeko aginduek honelako testua izanen dute:

Bat. Legearen testu osoan “soldatapeko” hitzaren ordez “kontratupeko” hitza jartzea.

Bi. 9.2 artikuluari lerrokada hau gehitzen zaio:

“Erreferentziazko eremu geografikoa, txosten horri dagokionez, lurraldearen antolamenduko tresnetan zehaztutako zonifikazioan ezartzen dena izanen da.”

Hiru. 13.1 artikulua:

“1. Taxi lizentziek ez dute epemugarik. Hala ere, baliozkoak izan daitezten, aldizka ikus-onetsi egin behar dira; hau da, egiaztatu egin behar da betetzen direla foru lege honen 6. eta 60.b) artikuluetan ezarritako baldintzak.

Udalerriak edo baterako zerbitzurako eremuan eskumena duen toki entitateak eginen du ikus-onespen hori, dagozkion ordenantzetan ezartzen den aldizkakotasunarekin eta ordenantza horietan ezarritakoari jarraituz.”

Lau. 13.3. artikulua:

“3. Taxi lizentzien titularrek eskatu ahal izanen diote udalari edo baterako zerbitzurako eremuko toki entitate eskudunari titularraren zerbitzu-ematea eteteko, bi urterako gehienez, baldin eta frogatzen badute gaixorik daudela, istripua izan dutela, ibilgailua matxuratuta dagoela edo hilabetetik gorako aldi zerbitzua ematea eragozten dien beste arrazoi justifikatu bat gertatu dela.”

Bost. 20.1. artikulua:

“1. Lizentziaren titularrak gehienez ere gidari bat kontratatu ahal izanen du lan gutxiko orduetarako, asteburu, jaiegun eta jaiegun-bezperetarako, gertakari berezietarako, herriko jaietarako eta antzeko aldietarako.”

Sei. 20.3. artikulua:

“3. Titularraren baliaezintasuna, lanerako ezintasun iragankorra, zerbitzu-ematearen eten behar bezala baimendua edo zerbitzua egitea eragozten dion beste edozein egoera suertatzen bada, langileak kontratatu ahal izanen dira lizentzia aldi baterako ustiatzeko, 2. idatz-zatian ezarritako baldintza bete beharrik izan gabe; egoera horiek, betiere, behar bezala frogatu beharko dira. Nolanahi ere, egoera honen gehieneko iraupena ez da bi urtetik gorakoa izanen”.

Zazpi. 20.4. artikulua:

“4. Langileak kontratatu aurretik baimena eman beharko du udalak edo baterako zerbitzurako eremuko toki entitate eskudunak. Baimen hori lizentziaren titularrak eskatu beharko du. Langileak kontratatzeko eskaerari baiezkoa eman zaiola ulertuko da baldin eta hilabeteko epean udalak edo baterako zerbitzurako eremuko toki entitate eskudunak ez badu ebazpen espresik ematen eta jakinarazten. Behin baimena lortu denean, hilabeteko epean, entitate eskudunari aurkeztuko zaio langilearen kontratuaren kopia eta Gizarte Segurantzako altaren edo autonomoen araubideko altaren kopia.

Bi aldeen arteko ahaidetasuna dela-eta kontratatutako pertsona ezin denean Gizarte Segurantzako araubide orokorrean alta emanda egon, langile autonomoen araubide berezian egon beharko du alta emanda”.

Zortzi. 22.4. artikulua:

“4. Ibilgailuaren okupazioari dagokionez, haurrek betetako plazen kontaketa eginen da, trafikoa-ri eta bide segurtasunari buruz indarra duen arautegian xedatutako moduan”.

Bederatzi. 23. artikulua. Idatz zati bat gehitzen da, 4. idatz-zatia:

“4. Gorpil-aulkien erabiltzaileak garraiatzeko ibilgailu egokitua atxikita dutela ageri diren taxi lizentzien titularrek taxi zerbitzuak egin ahalko dituzte jatorria edo helmuga dutenean ibilgailu egokituertarako lizentziarik ez duten udalerrri edo baterako zerbitzurako eremuetan. Zerbitzu horiek ibilbide-liburuan jaso beharko dira”.

Hamar. Artikulu bat gehitzen da, 26. bis artikulua:

“26. bis artikulua. Ibilbide-liburua.

1. Taxi lizentziei edo baimenei atxikitako ibilgailuek behar den ibilbide-liburua dutela zirkulatu beharko dute, eta bertan gidariak, hasi baino

lehen, foru lege honetako 23.4, 36.3 eta 46.2 artikuluetan ezarritako zerbitzuak jaso beharko ditu.

2. Ibilbide-liburua edizio librekoa izanen da. Liburuaren azalean jasoko dira taxi lizentziaren titularraren izen-abizenak, lizentzia eman duen udala edo baterako zerbitzurako eremua, lizentziaren zenbakia eta ibilgailuaren matrikula.

Ibilbide-liburu bakoitza erabiltzen hasi baino lehen, taxi lizentziaren titularrak hura garraioen arloko departamentu eskuduneari aurkeztu beharko du, edo, baterako zerbitzurako eremu bat baldin bada, eremu horretako toki entitate eskuduneari, diligentsia dezaten.

Liburu berria diligentsiatu denetik gehienez ere hamabost egun iragan direnean, titularrak aurreko liburua aurkeztu beharko dio organo eskudunari, aurreko liburua hori egiazki amaituta dagoela egiazta dezan.

Behin ibilbide-liburua guztiz amaitu denean, garraio ikuskapenerako zerbitzuen eskura gorde beharko da urtebetez, azken oharra egin denetik kontatzen hasita.

3. Ibilbide-liburuan jaso behar diren zerbitzu horietako bakoitzeko, honako datuak bete beharko dira:

a) Jatorriko edo helmugako udalak.

b) Zerbitzu mota:

– Hiri arteko zerbitzua, helmuga lizentzia ematen duen udalean edo eremuan duena.

– Enkargua.

c) Zerbitzua zein egunetan eta ordutan hasi eta amaitu zen.

d) Gidariaren izen-abizenak eta sinadura.

e) Erabiltzailea edo kontratu-egilea:

– Pertsona fisikoa baldin bada: izen-abizenak, helbidea eta telefonoa.

– Pertsona juridikoa baldin bada: izen soziala, IFZa eta helbidea.

f) Zerbitzuaren prezioa.

4. Izaera pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa ibilbide-liburuan jasotako datu pertsonalei aplikatuko zaie”.

Hamaika. 27. artikulua:

“27. artikulua. Taximetroa, modulua eta pilotua.

1. Taxi lizentziak eta baimenak dituzten ibilgailuek taximetroa eduki behar dute, behar bezala

prezintatua, homologatua eta egiaztatua, metrologiaren arloan eskumena duen organoak ezarritako araei jarraituz.

Halaber, ibilgailuek modulu bat eduki behar dute, tarifa aplikagarria agertuko duena ibilgailuaren kanpoaldean, indarra duen araudi teknikoan zehaztutakoaren arabera.

Hala eta guztiz ere, udalak edo baterako zerbitzurako eremuan eskuduna den toki entitateak taximetroa eta modulua eramateko betebeharrak salbuetsi ahalko du. Horrelako kasuetan, ibilgailuan taxi zerbitzua identifikatzen duten bereizgarriak eraman beharri eutsiko zaio, eta neurriak hartuko dira gehiegizko edo iruzurrezko kobrantza eragozteko.

Udalak edo baterako zerbitzurako eremuko toki entitate eskudunak besterik xedatu ezean, taximetroa ibilgailuaren karrozeriaren barrualdean egon da, aurrean, erdiko herenean kokatuta, eta beti argizatuta edukiko da. Horrela erabiltzaileek noiznahi ikusi ahal izanen dute garraioaren prezioa.”

2. Gainera, ibilgailuek kanpoaldean ikus-sistema bat eduki behar dute, ibilgailua erabilgarri dagoen ala ez adierazteko. Ordenantzetan bestelako prozedurarik zehazten ez den bitartean, taxiak bere sabaian argi-sistema bat edukiko du, non pilotu berdeak adieraziko baitu taxi zerbitzua emateko libre dagoela.”

Hamabi. 28.2. artikulua:

“2. Taxi lizentziei eta baimenei atxikitako ibilgailuak berritu egin beharko dira lehenengo matrikulaziotik hasi eta hamar urteko antzinatasunera iritsi baino lehen, baina beste bi urtez ere luzatu ahalko da epe hori, udaleko edo baterako zerbitzurako eremuko toki entitateko kasuko ordenantzetan ezarritakoaren arabera, baina, ibilgailuak, betiere, garraio publikoko ibilgailu baterako beharrezkoak diren osasungarritasun- eta segurtasun-baldintzak dituela.”

Hamahiru. 33.2. artikulua:

“2. Taxiak ezin izanen dute erabiltzailerik jaso bidaiari-garraioetako geltokien eta aireportuen inguruetan, edota udalek edo toki entitate eskudunek baterako zerbitzurako eremu baterako zehazten dituzten bestelako instalazioen edo geltokien inguruetan, baldin eta era horretara taxi geltokietan itxaroten dauden erabiltzaileak jasotzeko funtzionamendu normala eragozten badute.”

Hamalau. 36. artikulua.

“36. artikulua. Zerbitzua kontratatzea. Araubide orokorra.

1. Taxi zerbitzua egiteko eskatzen denean, ibilgailuko eserleku guztiak batera kontratatu behar dira.

2. Taxi zerbitzuak erabiltzaileei emanen zaizkie, beren ekipajeak eta guzti. Horri dagokionez, gidariek baimena eman beharko dute erabiltzaileek ibilgailuan maletak edo bestelako ekipajeak eraman ditzaten, baldin eta ibilgailuko maletategian sartzan badira, hura kaltetzen ez badute eta horrekin indarreko araudia hausten ez badute.

3. Aparteko kasuetan eta taxi zerbitzuaren prestazio egokian eraginik ez duen bitartean, enkarguak ere garraiatu ahalko dira, aldeek hori espresuki adosten dutenean eta ibilbide-liburuan behar bezala jasota geratzen bada, foru lege honetako 26. bis artikuluan ezarritako moduan. Enkargu horiek soilik egin ahalko dira aldi berean kontratu-egile batekin, eta abiapuntu bakarra eta helmuga bakarra eduki beharko dute, eta enkarguak egite hori ezin izanen da bidaiarien garraioaren aldi berean gertatu.

Horrelako enkarguak egiteko, bidaiarien zerbitzuetarako eskatzen diren tarifa-baldintza berak egon beharko dira, kasuko ordenantzetan ezarritakoaren arabera.”

Hamabost. 37.1. artikulua:

“1. Garraio publiko kolektiborik ez badago edo behar adinakoa ez bada, udalak edo baterako zerbitzurako eremuko toki entitate eskudunak edo Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan garraioen arloko eskumena duen departamentuak baimena eman ahal izanen dute, hurrenez hurren, hiriko edo hiriarteko taxi zerbitzuak, erregularrak nahiz eskatu ahalakoak, banaka ordaindu beharreko eserlekuka kontratatze.”

Hamasei. 43.1. artikulua. Letra bat gehitzen da, f) letra:

“f) Lizentzien titularren helbide aldaketa jakinaraztea, bai eta 15. artikuluan aipatzen den erregistroan jaso beharrekoa den edo beste arrazoi batengatik Administrazioari jakinarazi beharrekoa den beste edozein datu edo inguruabar ere, kasuko arauetan ezartzen denaren arabera.”

Hamazazpi. 46. artikulua:

“46. artikulua. Hiriarteko taxi zerbitzuen abiaburua.

1. Foru lege honetako 47. eta 48. artikuluetan zehazten diren kasuetan izan ezik, taxi lizentzia

eman duen udalerraren dermian hasi behar dira hiriarteko taxi zerbitzuak, edo, kasua bada, lizentzia eman den baterako zerbitzurako eremuko edozein udalerritan.

Hori dela eta, bidaiariak ibilgailuan jasotzen diren tokia joko da garraioaren hasiera toki edo abiaburutzat.

2. Aurreko idatz-zatian ezarritakoa galarazi gabe, hiriarteko taxi zerbitzuak taxi-lizentzia eman zenekoaz besteko udalerrri edo baterako zerbitzurako eremu batean hasi ahalko dira, lizentzia eman zuen udalerrian edo eremuan bukatzen badira eta ibilbide-liburua behar bezala beteterik dagoela zirkulatu bada; izan ere, bertan jasoko da kontratazioa aurretiaz egina dela, bai eta zerbitzuaren helmuga zein den”

Hemezortzi. 48. artikulua:

“48. artikulua. Udalen arteko koordinazioa. Baterako zerbitzurako eremuak.

1. Baterako zerbitzurako eremu batean esku-menak dituzten udalek edo toki entitateek, garraioen arloan eskuduna den departamentuarekin batera, eta Nafarroako Taxien Kontseiluak txostena egin ondoren, administrazioen arteko koordinaziorako formulak ezarri ahal izanen dituzte beren udalerrietako taxi zerbitzua emateko.

Zerbitzua antolatu eta kudeatzeko koordinazioaren nondik norakoak, betiere, formalizatzen diren lankidetzeta-hitzarmenetan zehaztuko dira, edo indarra duen araudian aurreikusitako bestelako tresnetan, eta, betiere, foru lege honetan xedatutakoarekin bat etorriko dira.

2. Inguru bereko zenbait udalerritako taxi zerbitzuek elkarrengan eragina duten kasuetan, hau da, zenbait udalerririk batera halako zerbitzuak egoki antolatzeko interesa duten kasuetan, baterako zerbitzurako eremuak ezarri ahal izanen dira. Hartara, baterako zerbitzurako eremuko toki entitate eskudunak emandako lizentzia duten ibilgailuek ahalmena izanen dute eremu horretako mugarte osoan zerbitzuak egiteko.

Baterako zerbitzurako eremu bat ezarriz gero, bertako mugak gainditu gabe egiten diren taxi zerbitzu guztiak hiriko taxi zerbitzutzat joko dira.

Baterako zerbitzurako eremu bat ezarri ahal izateko, baldintza hauek bete behar dira: hura osatuko duten udalerrien jarraitasun geografikoa, lurralde-koherentzia, bideragarritasun ekonomikoa eta kudeaketaren bideragarritasuna. Baldintza horiek baloratzean, kontuan izanen dira, besteak beste, lurraldearen antolamendurako tresnen irizpideak eta zehaztapenak”

Hemeretzi. 57.1.c) artikulua:

“c) Lizentzia edo baimenik gabe emandako taxi zerbitzuetan eginiko arau-hausteen erantzukizuna ibilgailuaren titularrari edo gidariari egotziko zaio”

Hogei. 60. artikulua. Aldatu egiten da b) letra-ren 1. zenbakia, eta beste arau-hauste bat sartzen da, zeina n) letra gisa jasoko baita, halako moduz non testuko n) letra, aurrerantzean, ñ) letra izanen den.

“b.1) Hiriarteko zerbitzuak, turismo-ibilgailuetan, lizentzia eman den udaletik abiatuta egitea, betiere foru lege honetako salbuespenak kontuan hartuta.”

“n) Enkarguak egitea aplikatzekoa den araudia bete gabe.

ñ) Aurreko idatz-zatietan [...] larritzat jotzen bada”

Hogeita bat. 61. artikulua. Letra bat gehitzen da, j) letra:

“j) Lizentzien titularren helbide aldaketa ez jakinaraztea, bai eta 15. artikuluan aipatzen den erregistroan jaso beharrekoa den edo beste arrazoi batengatik Administrazioari jakinarazi beharrekoa den beste edozein datu edo inguruabarrena ere, kasuko arauetan ezartzen denaren arabera”

Hogeita bi. 63.3. artikulua:

“3. Antzematen bada taxi zerbitzu bat egiten ari dela behar den taxi-lizentzia edo -baimena eduki gabe, ibilgailua berehala gerarazi ahalko da.

Ikuskapen zerbitzuek edo errepedeko garraioa zaintzeaz arduratzen diren agenteek behin-behinekoz finkatuko dute isunaren zenbatekoa, salatu-takoak zehapenaren zenbatekoa ordain dezan, gordailu kontzeptuan, edo kausioa eman dezan, garraioaren arloko arau-hausteengatik kausioa emateari buruzko arauetan ezarritakoaren arabera. Halaber, ibilgailuaren dokumentazioa atxiki beharko dute, harik eta gordailu hori ordaintzen den arte edo behar adinako kausioa ematen den arte.

Gerarapena behar adinako segurtasun baldintzak betetzen dituen toki batean egiten da, eta hartutako neurriaren eraginkortasuna bermatzeko moduan. Hala eta guztiz ere, salatuaren erantzukizuna izanen da ibilgailua zaintzea eta gerarazte horrek ekar ditzakeen gastuak ordaintzea.

Bestalde, salatuak beste garraiobide bat aurkitu beharko du bidaiariak helmugara irits daitezen, eta garraio horrek dakartzan gastuak ordaindu beharko ditu. Ezin izanen da geraraztea altxatu gastu horiek ordaindu arte.

Gerarazpenarengatik gordailuan dauden ibilgailuei, haien titularrek erretiratzeko ez badituzte, lurreko garraioei buruzko araudian aurreikusitako neurriak aplikatu ahalko zaizkie, eta interesdunari aukera horretaz ohartarazi beharko zaio ibilgailua gerarazteko unean.

Zerbitzua egin bitartean 59. artikuluko b) letra-ko arau-haustea egiten ari direla ikusten bada, ibilgailua berehala geldiarazteko agindu ahal izanen da eta neurri horrek indarrean iraunen du harik eta arau-haustea osatzen duten arrazoiak desagertu arte. Horrelakoetan administrazio eskudunak behar diren neurriak hartu ahal izanen ditu erabiltzaileek ahalik eragozpen gutxien jasan dezaten.”

Hogeita hiru. 65.4. artikulua:

“4. Administrazio bideari amaiera ematen dioten ebazpenen bidez ezarritako isunak ordaintzea nahitaezko baldintza izanen da lizentziak ikusonesteko, lizentzien eskualdaketarako baimen administratiboa emateko eta arau-haustea egitean erabilitako ibilgailuen berritzerako baimen administratiboa emateko.”

Hogeita lau. 65.5. artikulua:

“5. Zehapen espedientearen hasiera jakinarazi eta hurrengo hamabost egunen barruan interesdunak bere borondatez isuna ordaintzen badu, diruzenbatekoa ehuneko 25 murriztuko da. Ordainketa horrek berarekin ekarriko du ados egotea salatutako gertakariekin, alegazioak aurkezteari uko egitea eta prozedurari amaiera ematea; hala eta guztiz ere, ebazpen espresa eman beharko da.

Diruzko zehapena ordaintzen baldin bada zehapen-ebazpena eman aurretik, amaiera ematen zaio prozedurari, eta horixe jaso beharko da zehapen-ebazpenean. Hala eta guztiz ere, zehapenak berarekin diruz bestelako ondorioak baldin badakartza, jarraipena eman beharko zaio prozedurari, hura amaitu arte, aipatutako zehapen osagarriari dagokionez.”

Hogeita bost. Bigarren, hirugarren eta bosgarren xedapen iragankorrak kentzen dira.

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, legean berean aurreikusitako ondorioekin.



## Foru Legea, Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzen duena.

### OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2013ko ekainaren 27an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2013ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### Foru Legea, Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzen duena

#### ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legeak arau-esparru propio bat ezarri zuen, basa faunaren parte baten aprobetxamenduari dagokionez, eta Basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea aplikatu den hamar urteotan pilatutako esperientzia jaso zuen.

Foru lege honek ezartzen duen gauzarik garrantzitsuenetariko bat da nortasuna aitortzen zaiola barrutien titularrek egindako kudeaketari, eta murriztu egiten duela Foru Komunitateko Administrazioaren esku-hartzea. Halatan, foru lege honek kudeaketa partekatua beren gain hartzeko aukera ematen die toki entitateei, ehiza aprobetxamenduak erabiltzeko aukerak emanda. Horrela, baliabide horren aprobetxamenduaren izaera soziala azpimarratzeko ala tokiko garapen sozio-ekonomikorako bide gisa erabiltzeko erabakia udal eremuan geratuko litzateke, toki entitateak hori nahi izanez gero.

Abenduaren 28ko 17/2005 Foru Legearen garapenak eta aplikazio praktikoak agerian jarri dute zenbait alderdi berrikusi beharra dagoela, egungo beharriaz erantzunen bazaie.

Alde batetik, ika-mika eragin du ehiza-barrutietan zaintza sistema bat egon beharrak, zeina foru legean jasotzen baita eta erregelamenduz ezartzen denari jarraikiz aurtengo otsailetik aurrerako indarraldia baitauka.

Beste alde batetik, badira egokitu beharreko beste zenbait alderdi ere; adibidez, ehiza-barruti bat eratzeko eskatzen den gutxieneko azalera, barruti intentsiboen berezitasunak edo zehapen-jarduna.

**Artikulu bakarra.** Honela aldatuko da Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea:

**Bat.** 16. artikulua aldatzen da, idatz-zati berri bat gehituta, hirugarrena:

“3. Aprobetxamendu trinkoko barruti berezi horietan, barrutia eratzeari baimentzen duen ebazpenak jasoko ditu barrutiaren titularraren eta aprobetxamenduaren titularraren betekizunak.”

**Bi.** 18. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzen da. Hona testu berria:

2. Ehiza-barruti bat eratzeko exijitutako gutxieneko azalera aldatu ahalko da, salbuespenez eta aldez aurretik administrazioak baimena emanda, honako kasuetan:

“a) 2.000 hektarea baino gutxiago dituzten toki barrutiak sortu ahalko dira, herrian horretarako behar adinako azalerarik izan ez eta 15 hektareatik beherako azalera badago herriko bizilagun den ehiztari bakoitzeko.

b) 1.000 hektareatik gorako tokiko barrutiak eratu ahalko dira, baldin eta ehiza larria bada aprobetxamendu nagusia eta barrutiaren kudeaketa zuzenean egiten badu toki entitate titularrak, edo enkante bidez egiten bada.”

**Hiru.** 20. artikuluko 2. idatz-zatiko e) letra kentzen da.

**Lau.** 21. artikuluko 1. idatz-zatiaren b) letra aldatzen da. Hona testu berria:

“b) Arestiko artikuluko lehenengo idatz-zatiko a) eta b) letretan eta artikuluko bereko bigarren idatz-zatiko a), c) eta h) letretan ezarritakoa betetzea, aprobetxamenduaren esleipenean ezartzen diren termino eta baldintzetan.”

**Bost.** 21. artikuluari idatz-zati berri bat, hirugarrena, gehitzen zaio:

“3. Ehiza barrutiaren aprobetxamenduaren parte bat egiten badute ehiza aprobetxamenduarien titularrek emandako aldi baterako baimenak dituzten pertsonak, titular horiei dagokie aldi bate-

rako baimenak (txartelak) ematean eta erabiltzean ahalik eta gardentasun handiena egon dadin zain-tzea. Horretarako, ehiza aprobetxamenduaren titu-larrak barrutiaren titularrari jakinarazi beharko diz-kio aldi baterako baimen horien kopurua eta zenbatekoak”.

Sei. 33. artikulua aldatzen da. Debekualdiei buruzko xedapen orokorra. Idatz-zati berri bat gehitzen da:

“4. Barruti intentsiboetako ehiza aprobetxamen-dua barrutiaren ehiza antolamenduko planean ezarritakoaren arabera eginen da”.

Zazpi. Beste lerrokada bat gehitzen zaio 34. artikuluko 2. idatz-zatiari.

“Ehiza-espezieen aleak askatzea aurreikusit duten barrutien ehiza antolamendurako planetan, jaso beharko dira, halaber, honako hauek bermatzeko neurriak: askatuko diren animalien egokitasun genetikoa eta kalitate sanitarioa, eta barrutiko ingurumen balioak mantentzea”.

Zortzi. 51. artikulua aldatzen da. Hona testu berria:

“51. artikulua. Zaintza.

Edonola ere, barrutiak ehiza-zaintzako sistema bat eduki beharko du ondoko jarduerak egin ahal izateko:

a) Salbuespeneko ehiza-baimenak betetzea, bai 39. artikuluan jasotako metodoak erabiltzeagatik, bai ohiko ehiza-denboralditik kanpo egiteagatik.

b) Populazioak maneiatzea, eta horren barruan sartuko dira askatzeak, birpopulatuak eta translokazioak. Edonola ere, ehiza espezieen birpopulatuak baimendu denean, eta espezie horiek ehizatzea debeku den denboran, eta barrutiak bestelako espezieak ehitzatzeko aukera ematen duenean.

c) Oreinak eta orkatzak zelatan ehizatzea.

d) Ehizaldiak eta monteriak, behar diren segurtasun prozedurak kontrolatzeko asmoz.

Basurde-ehizaldietan nahitaezkoa izanen da ehizazain bat kontratatzea, baldin eta ehizaldia gutxienez 24 orduko aurrerapenarekin aurreikusiten bada eta parte hartuko duten ehiztariak hogeitau baina gehiago badira. Halakoetan, derrigorrezkoa izanen da ehizazaina barrutian egon dadin ehizaldiak iraun bitartean.

e) Populazioen urtealdi-kontrolak.

f) Kudeaketa okerrarengatik edo pozoia eta amu pozoituak jartzeagatik edo lege indardunek debekatzen dituzten gai toxikoak erabiltzeagatik barrutia osorik edo zati batean itxi denean, administrazio edo zigor espediente bat edo kautelazko neurri bat betetzeko. Kasu honetan ehizazaina barrutian egonen da, bertan egiten den lehenengo ehiza-denboraldi gauzatua bukatu arte.

g) Erregelamenduz gara daitezkeen bestelakoak”.

Bederatzi. 89. artikulua 1. idatz-zatia aldatzen da. Arau-hauste oso larriak. Hona testu berria:

“1. Pozoiak eta amu pozoituak jartzea eta legedi indardunak debekatutako substantzia toxikoak erabiltzea”.

Hamar. 89. artikulua aldatzen da. Arau-hauste oso larriak. Idatz-zati berri bat, hirugarrena, gehitzen da:

“3. Ehiza-espezieak baimenik gabe sartzea edo askatzea edo baimenean ezarritako baldintzak ez betetzea”.

Hamaika. Xedapen gehigarri berri bat gehitzen da.

“Zazpigarren xedapen gehigarria. Espezie jakin batzuk askatzeko baimena.

Baimendu ahalko da eper gorria, erbi europarra eta mediterranearra eta untxia askatzea, erregelamenduz zehaztutako baldintzetan.

Ehizaren arloan eskumena duen departamentuak baldintza horiek garatuko ditu, gehienez ere hemezortzi hilabeteko epean”.

Hamabi. Xedapen gehigarri berri bat gehituko da.

“Zortzigarren xedapen gehigarria. Arau-haustekak jakinaraztea.

Nafarroako ehiza barruti publikoetako ehizazainek salatzen dituzten foru lege honetan xedatutakoaren aurkako arau-haustekak, ehizaren arloan eskumena duen departamentuari helaraziko zaizkio, bai eta barrutiaren titularrari den toki entitateari eta ehiza-aprobetxamenduaren titularrari ere”.

**Azken xedapena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

## **Foru Legea, Nafarroan etxebizitzarako eskubidea ziurtatzeko neurri urgenteei buruzkoa.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2013ko ekainaren 27an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroan etxebizitzarako eskubidea ziurtatzeko neurri urgenteei buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2013ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **Foru Legea, Nafarroan etxebizitzarako eskubidea ziurtatzeko neurri urgenteei buruzkoa**

#### ZIOEN AZALPENEA

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 25. artikulua honakoa ezartzen du: "Pertsona orok du bizimodu egokia izateko eskubidea, bai berari eta bai bere familiari osasuna eta ongi izatea bermatuko diena, eta batez ere janaria, jantziak, bizitokia, mediku-sorospena eta gizarte-zerbitzuak; eta baita lanik eza, gaixotasuna, elbarritasuna, alarguntasuna, zahartzaroa edo bizibidea nahi gabe galtzeko beste kasuren bat gertatzen denerako aseguruia izateko eskubidea ere". Bestalde, Espainiako Konstituzioko 47. artikulua ezartzen duenez, "espainiar guztiek dute etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea". Halaber, dei egiten die botere publikoei behar diren baldintzak susta ditzaten eta egoki diren arauak ezar ditzaten eskubide hori gauzatzeko, interes orokorrari begira arautuz lurzoruaren erabilerara, espekulaziorik egon ez dadin.

Agindu horiek betez, Nafarroan Etxebizitza Iza-teko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldarrikatu zen, bestea beste. Lege horren bidez, zenbait neurri hartu ziren, eskubide hori eta botere publikoei, etxebizitzak ezinbestez daukan ikuspegi soziala betetze aldera, dagozkien betebeharrak zehazteko.

Konstituzioak etxebizitzarako eskubideari ematen dion garrantzia gorabehera, praktikan merkaturko legeei lotutako kontsumo-ondasun huts baten gisara hartzen da. Ingurumari horretan, premia-koa eta beharrezkoa da botere publiko guztiek behar diren neurriak har ditzatela etxebizitzaren eginkizun soziala ziurtatze aldera eta, hartara, Konstituzioko 47. artikulua bete dadila, administra-

zio publikoek eskubide horren gauzatzeari bermatuz.

Konstituzioko 33. artikulua jabetza pribaturako eskubidea finkatzen du, eta ezartzen du eskubide horren edukia haren "funtzio sozialak" zedarritzen duela, eta delako funtzio sozial hori funtsezkoa da eskubide sozialak orokortzeko. Konstituzioak ez ditu, beraz, babesten jabetza-eskubidearen erabilerara antisozialak. Printzipio hori lotu beharra dago Konstituzioko 128. artikuluekin, zeinaren arabera, "herrialdearen aberastasun guztia, edozein dela ere haren forma eta titulartasuna, interes orokorraren mendeko" baita, eta 40. artikuluekin, zeinak haxe xedatzen baitu: "Botere publikoek bide egokiak jarriko dituzte aurrerapen sozial eta ekonomikoa bermatzeko eta ekitate handiagoz bana dadin eskualdeen nahiz pertsonen errenta". Etxebizitzaren berezko xedea, kasu honetan, teila-tupe bat edukitzeko eskubidea betetzeko bidea bultzatzea denez, bertan pertsonak normaltasunez gara ahal daitezen gizartearen barruan, etxebizitzak hutsik egotea da ondasun horren xedea eta funtzio soziala ez betetzearen erakusgarri handiena.

Lege-aldaketa honen bitartez, hobetu nahi da etxebizitzaren jabetzaren funtzio sozialaren eta funtzio sozial hori ez betetzearen ondorioen definizioa, larrialdi sozial eta ekonomikoko garaitzat jo daitezkeen hauetan. Aldi berean aurkitzen ditugu, batetik, erabiltzen ez diren edo azpi-erabiltzen diren etxebizitzak parke neurrigabe bat eta, bestetik, bete gabe dagoen eskari bat, behar adinakoa ez den eskaintza batekin eta prezio ez-egokiekin, bai eta etxebizitzak kentzeko prozesu ugari ere, bereziki exekuzio hipotekarioen ondoriozko etxebizitzak, etxebizitza horietan bizi direnek ezin ordaintzeagatik etxebizitza erosteko prezioa edo alokairua, krisi ekonomiko iraunkorraren eta langabezi tasa handiaren ondorioz diru-sarrerek behera egin dutelako orokorrean. Etxebizitzak hutsik egoteko modu desberdinen artean, errefusa handiagoa merezi du gisa desberdinetan pertsona juridikoen jabetzakoak diren etxebizitzak multzoari dagozkionak, bereziki, finantza-entitateenak eta haien higiezin-filialenak, aktiboekudeaketarako entitateenak, banku-berregituratzeetatik heldu direnak barne eta higiezin-entitateenak. Garrantzi kuantitatibo handikoak dira, gainera. Ohargarria da pertsona juridikoen etxebizitzak inbertsio-ondasun bezala erabiltzea, eta hori kontrajartzen

zaio pertsona fisikoei etxebizitzarako eskubidearen gainean dagokien erabilerari. Hori elementu bereizgarri bat da, izaera ekonomiko eta sozialeko beste batzuekin batera, nolakotasun bat gehitzen diona pertsona juridikoek etxebizitzari egiazko bizileku-erabilera emateko daukaten betebeharraren urraketari. Horrek justifikatzen du polizia-ekintza publiko bat ezartzea, hutsik dauden etxebizitza horiei zuzendua.

Bizi gareneko esparru ekonomiko bereziak eskatzen du urgentzia larritzko aparteko jarduketak egin dezagun, jokoan diren oinarritzko eskubi-deen izaera kontuan izanda.

**1. artikulua.** Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzen da. V. bis titulua gehituko zaio, honako edukiarekin.

#### “V. BIS TITULUA

Etxebizitza hutsak egotea saihesteko tresna administratiboak

#### I. KAPITULUA

Etxebizitza hutsak. Halakoak deklaratzeko prozedurak

42. bis artikulua. Etxebizitza hutsen definizioa.

1. Titulu honen ondorioetarako, etxebizitzat hartzen da bere exekuzio-egoerarengatik egiazki okupatuta egoteko legezko baimen guztiak dituen eraikina, edo legezko baimen horiek eskatzeko egoeran dagoena eta aplikatzeko den hirigintza planeamenduaren arabera bizitoki-erabilera xehakatu duena edo bizitoki-erabilera baimendua duena erabilera-aldaketako kasuko hirigintza lizentziaren bitartez, hiri lurzorutzat edo lurzoru urbanizagarritzat sailkatutako lurzoru batean. Aurrekoa ulertuko da baimen horiek eskatzeko betebeharra ezertan galarazi gabe.

2. Etxebizitza bat hutsik egotearen presuntzioa aplikatuko da bizitoki-erabilera eman zitzaion azken egunetik hasita urtebeteko epean ez bazaio ematen, elkarren segidako sei hilabete baino gehiagoz, antolamendu juridikoak edo hirigintza-planeamenduak ezarritako bizitoki-erabilera. Eragin horietarako, bizitoki-erabilerarako azken eguntzat hartuko da bizitoki-erabilerako gutxienez ere sei hilabete jarraituko aldiari amaiera ematen dion azken eguna. Bizitoki gisa sekula erabili ez diren etxebizitzetarako, epe hori kontatzen hasiko da haien exekuzio-egoerak egiazko okupaziorako legezko baimenak eskatzeko bidea ematen duenetik aurrera; edo, baimen horiek jada eman badira, ematearen jakinarazpenetik aurrera. Legezko baimenak eskatu bai baina oraindik eman ez diren kasuan, haiek emateko epea deskontatuko da.

3. Lege honetan xedatuaren eraginetarako, honakoak salbuesten dira:

a) Turismoaren arloko legedian araututako erabilera baterako eraikinak, kasuko hirigintza lizentziak eta irekitzeko lizentziak badituzte, turismoaren arloko lege indardunetan eta kasuan kasu aplikatzekoak diren gainerako baimen sektorialetan exijitzen diren baldintzez gainera.

b) Pertsona fisikoek etxebizitzak, haien erabile- ra eskusiboa aisialdikoa edo jostetakoak denean.

c) Sasoika eginiko errentamendua tarteko, hiri finkeen moduan egiazki erabiltzen diren etxebizitzak, dela udaldietarako, dela beste edozein aldirarako, bai eta kasuko finkan industria, merkataritza edo artisautza jarduera bat edo jarduera profesional bat edo josteta, laguntza, kultura nahiz irakaskuntza jarduera bat gauzatzeko eginiko kontratua dutenak ere, betiere jarduera horietan aritzeko behar diren lege baldintzak betetzen badira eta, gutxienez ere, urtebetean hogeita hamar egun baino gutxiagokoa ez den okupazioa badute.

4. Pertsona fisikoek titulartasunekoak diren etxebizitza hutsen kasuan, ez da zehapen ahalmen hau baliatuko, foru lege honetan ezarritako terminoetan.

5. Foru lege honetan araututako zehapen ahalmenaz baliatzearen eraginetarako, etxebizitza hutzat hartuko da modu erregularrean nahiz irregularrean eratutako pertsona juridiko baten titulartasunekoak dena soilik. Titulartasuntzat joko da bai etxebizitzaren jabari osoa izatea, bai haren gaineko jabekidetasunaren partaidetza gehiena izatea.

6. Etxebizitza hutsik dagoela deklaratzeko duen ebazpena titulu honetan araututako kontradikzio-prozeduraren bitartez eman beharko da, betiere administrazio-prozedurari buruzko oinarritzko arauetan ezarritakoaren arabera.

42. ter artikulua. Etxebizitza hutsik izatearen zantzuak.

1. Besteak beste, honakoak izanen dira etxebizitza bat hutsik dagoela jotzeko kontuan hartuko diren zantzuak:

a) Biztanle-eroldako datuak eta bizilagun edo okupatzaileen beste erregistro publiko batzuetako datuak.

b) Ur, gas eta elektrizitate hornikuntzarik ez izatea edo haietan kontsumo anormalki txikiak izatea, hurrengo ataletan ezarritakoaren arabera.

c) Posta eta jakinarazpenak beste helbide batzuetan jasotzea.

d) Komunikazio telefoniko eta informatikoetarako beste toki batzuk erabiltzeko ohitura izatea.

e) Etxebizitzaren titularraren aitorpenak edo egintzak.

f) Bizilagunen deklarazioak.

g) Etxebizitzaren titularra den pertsonak justifikaziorik gabe ezezkoa ematea etxebizitzaren arloko departamentu eskudunak egiaztapenak egiteari, horretarako inolako kausa sinesgarriarik sumatzen ez denean eta etxebizitza hutsik egotearen beste aztarnaren batzuk ere badirenean.

2. Hornigaien kontsumoari dagokionez, kontuan hartuko da etxebizitza bakoitzeko eta urte bakoitzeko ohiko batez bestekoa, erreferentziako herrian zerbitzua ematen duten enpresa hornitzaileek emandako balioetatik ateratzen dena. Halako daturik ez badago, hurrengo ataletan adierazitako balioak erabili ahalko dira. Atal horiek erregelamendu bidez aldatu edo gaurkotu ahalko dira.

3. Ur kontsumoa, zeinak, kasuko zerbitzu hornitzaileek informazio zehatzagoa ematen ez duten bitartean, aukera ematen baitu etxebizitza hutsik dagoela jotzeko:

– etxebizitza eta hilabete bakoitzeko 0,21 metro kubiko baino txikiagoa.

– etxebizitza eta urte bakoitzeko 2,47 metro kubiko baino txikiagoa.

4. Elektrizitate kontsumoa, zeinak, kasuko zerbitzu hornitzaileek informazio zehatzagoa ematen ez duten bitartean, aukera ematen baitu etxebizitza hutsik dagoela jotzeko:

– etxebizitza eta hilabete bakoitzeko 24 kilowatt/ordu baino txikiagoa.

– etxebizitza eta urte bakoitzeko 291 kilowatt/ordu baino txikiagoa.

42. quater artikulua. Etxebizitza hutsei buruzko informazioaren arloko betebeharrak eta informazio horren edukia.

1. Pertsona fisiko edo juridikoak, publiko edo pribatuak, behartuta egonen dira Foru Komunitateko Administrazioari ematera, azken horrek eskatuta, etxebizitza hutsen edo egoera horien ardura duten pertsonen edo entitateen azterketan, zuzenean nahiz zeharka eragin lezaketen inolako datu, txosten, aurrekari eta egiaztatgiak.

2. Eragin horretarako, informazio-eskarian, zeina, nolana ere, egokia, pertinentea eta ez-gehiegizkoa izanen baita, zehaztuko da hura zenbateraino den beharrezkoa arlo horretako ikuska-

pen-ahalmenak garatzeko, eta hura oinarritzen duten lege-xedapenak zehaztuko dira.

3. Horretarako bidaltzen den informazio-eskariak helburu izan dezake, bai etxebizitza jakin batzuen huts-egoera banaka ikertzea, bai informazio-eskaria egiteko garaian aurredefinituta ez zeuden baina Administrazioak ikuskatze-ahalmenak baliatzeko beharrezkoak izan daitezkeen inguruabarrak argitzea, etxebizitzaren arloko biurteko ikuskatze-planaren helburu, lehentasun eta lurralde-esparruen edo esparru subjektiboen arabera.

4. Eskatutako informazioa euskarri informatikoan gordetzen denean, euskarri horretantxe eman beharko da, hala eskatzen bada.

5. Ur, elektrizitate eta gas zerbitzuen hornidurarako konpainiek, etxebizitzaren arloko departamentu eskudunak halakorik eskatzen duenean, bidaliko dute behar den informazioa –ukitutako pertsonen adostasunik gabe ere eta datuen babesari buruzko arauetan ezarritakoari loturik–, eskarian zehaztuko diren etxebizitzek dauzkaten batez besteko kontsumoei dagokienez. Eskatzen badira, berariaz adierazitakoez beherako kontsumoak dituzten etxebizitzaren edo etxebizitza-multzoen zerrendak bidaliko dira, zerrenda horietan jasotako etxebizitzak kokatuta daudeneko bide, kale edo plazaren izena adierazita, eta zehaztuz, halaber, kontratuaren eta etxebizitzaren titularraren izen-abizenak edo sozietate-izena, bai eta pertsona titularraren helbidea eta IFZa edo sozietatearen IFKa ere. Horretarako, aipatutako departamentuaren eskaria izan ahalko da kokapen zehatzei buruzkoa, kale, bide edo haien multzo bati buruzkoa edo grafikoki nahiz deskriptiboki berariaz mugatutako esparruei buruzkoa.

6. Etxebizitzaren arloko departamentuari aurrez eskatu ondoren eta soilik foru lege honen esparruko eskumenez baliatzeari dagokionez, udalek departamentuari informazioa igorriko diote –ukitutako pertsonen adostasunik gabe ere eta datuen babesari buruzko arauetan ezarritako terminoetan– udalaren azken zentsuari edo biztanleroldari buruz, errolda-orrien arabera inor inskribaturik ageri ez den etxebizitzei dagokienez. Horietako bakoitzaren kasuan adieraziko da, gutxienez ere, zehazki non dagoen kokatuta, katastroan zein erreferentzia duen eta titularraren edo titularren izen-abizenak, sozietate-izena, IFKa edo IFZa eta helbidea.

7. Etxebizitzaren arloko departamentu eskudunak eskatuta, finantza-entitateek eta haien higiezin-filialek, aktiboen kudeaketarako entitateek –banku-berregituratzetik heldu direnak barne– eta

higiezin-entitateek, edozein dela ere haien helbide soziala, informazioa bidaliko dute –ukitutako pertsonen adostasunik gabe ere eta datuen babesari buruzko arauetan ezarritako terminoetan–, ondorio hauetarako finkatzen den esparru zehatzari dagokionez, hutsik dauden beren titulartasuneko etxebizitzari buruz, eta haietarako bakoitzaren kasuan, honakoak adieraziko dituzte: kokaleku zehatza, katastroko erreferentzia, finkak erregistroan duen zenbakia, izena, abizena, sozietate-izena, IFZa edo IFKa. Etxebizitza babestua baldin bada, berariaz zehaztu beharko da hori, kalifikazioari buruzko ebazpena adierazita.

8. Artikulu honetan aipatzen diren komunikazioak hogeita hamar eguneko epean igorri beharko zaizkio departamentu eskatzaileari, informazio eskaria jasotzen denetik hasiz kontatuta.

42. quinquies artikulua. Etxebizitza bat hutsik dagoela deklaratzeko prozeduraren izapidetzea.

1. Etxebizitza bat hutsik dagoela deklaratzeko prozeduraren hasiera, izapidetzea eta ebazpena eta hortik eratortzen diren zehapenen ezarpena etxebizitzaren arloko departamentu eskudunari dagokio.

2. Prozedura aurrera eramanez da erregistroko titularraren den pertsonarekin edo, hura ez bada, etxebizitzaren edo etxebizitza-multzoaren katastro-titularraren den pertsonarekin. Halaber, pertsona interesduntzat hartuko dira, kasua bada, eskubide errealean eta egoera juridikoen titularrak, Jabetzaren Erregistroan inskribatu eta ohar bidez jositakoak; hori, halere, ez da eragozpena izanen eskubide edo interes legitimoen titularrei komunikazioak bidaltzeko.

3. Etxebizitza edo etxebizitza-multzoa pro indiviso araubidean pertsona titular batzuen edo nortasun juridikorik gabeko erkidego edo entitate batena baldin bada eta haren lege-ordezkaria zein den ez bada ezagutzen, pro indiviso-ko titularretako bakoitza eta erkidegoa osatzen duten pertsonetako bakoitza, daukan erantzukizun solidarioari erreparatuta, ordezkaritzat joko da, prozedura hau izapidetzearen ondorioetarako; hori, halere, ez da eragozpena izanen gainerako kotitularrei edo erkidegoko pertsonen komunikatzeko.

4. Prozedura hasiko da etxebizitzaren arloko departamentu eskudunaren organo egokiaren erabakiaren bidez. Prozeduraren hasierari buruzko erabakia pertsona interesdun guztiei eta Etxebizitza Hutsen Erregistroari jakinaraziko zaie, erregistro-orri bat ireki dezan eta behin-behineko identifikazio zenbakia esleia diezaion.

5. Kontradikzio-prozedurari hasiera emateko erabakian, etxebizitza hutsik egoteari buruzko aztarnak zehaztuko dira, hain zuzen prozedura irekitzeko bidea ematen dutenak, eta entzute-tramiteari hasiera emanen zaio, hura jakinarazten denetik hamar egunez. Epe horretan interesdunek komenigarritzat jotzen dutena alegatu ahalko dute eta egokitzen jotzen dituzten probak aurkeztu edo proposatu ahalko dituzte.

6. Interesdunek egiaztatzen edo justifikatzen badute etxebizitzak hutsik egoteari buruzko aztarnarik ez dagoela kontradikzio-prozedura hasteko arrazoa ematen duenik, amaitze-ebazpena emanen da, eta ildo horretatik egindako alegazioak baietsiko dira; gero prozedura artxibatzeke agindu da, eta ebazpen hura Etxebizitza Hutsen Erregistroari bidali beharko zaio, prozedura hasterakoan irekitako erregistro-orria eta behin-behineko identifikazio-zenbakia deusezta ditzan.

7. Alegaziorik aurkezten ez bada, edo interesdunen alegazioek prozedurari hasiera emateko arrazoa izan ziren aztarnak, etxebizitza hutsik egoteari buruzkoak, aldarazten ez badituzte, aurrera jarraituko da instrukzioarekin.

8. Kontradikzio-prozeduraren xedea den etxebizitzaren titulartasuna pertsona fisiko bati edo zenbait pertsona fisikori erkidegoan dagokienean, behin entzute-tramitea amaiturik ebazpena emanen da, eta ebazpen horretan zehaztuko dira titularrari edo titularrei eskaintzen zaizkien sustapen neurriak, haiei etxebizitza errentan ematea erraztera bideratuak; eta xede horretarako hilabete emanen da, egintza jakinarazten denetik kontatzen hasita, titularrak nahi duena adieraz dezan neurrien onarpenari buruz. Tarte horretan, prozedura eten egingen da, ebazpenaren gehieneko epea kontatzearen ondorioetarako. Epea betetzen bada jabeak neurrien onarpenari buruzko iritzia idatziz eman gabe, prozedura automatikoki berrabiaraziko da. Sustapen neurri bat edo batzuk onartzen badira, prozedura eteteko ebazpena emanen da, eta jabeak etxebizitzaren arloko departamentu eskudunari jakinarazi beharko dio, neurri horiek onartu eta bi hilabeteko epean, egiazki noiz hasiko den etxebizitzan bizitzen. Onarpena eman denetik bi hilabete iragan direnean jabetzak egiazki etxebizitzan bizitzen hasteari buruzko jakinarazpenik egin gabe, ebazpena emanen da etetea bertan behera uzteko eta prozeduraren instrukzioarekin aurrera jarrai dezan agintzeko.

Jabetzak, sustapen neurrien onarpena adierazteaz gainera, egiazki etxebizitzan bizitzen hasteko data jakinarazi duenean, prozeduraren eteteari eutsiko zaio, harik eta etxebizitzaren bizileku-erabileraren egiazko betetzea frogatzen den arte. Izan

ere, erabilera hori formalizatutzat joko da baldin eta hasi zen egunetik gutxienez ere hurrengo sei hilabeteetan etenik gabe eusten bazaio. Adierazitako epean egiazko bizilekua izateari etenik gabe eutsi zaiola frogatu ezean, etetea bertan behera uzteko eta prozedurarekin jarraitzea agintzeko ebazpena emanen da.

9. Bizileku izate efektiboa etenik gabeko sei hilabetez izan dela egiaztatu ondoren, jabetzak eragin horretarako jakinarazitako hasierako datatik kontatzen hasita, prozedura amaitutzat emateko ebazpena emanen da, eta jarduketak artxibatzea erabakiko da, ezertan kendu gabe egin daitezkeen jarraipen eta ikuskapen jarduketak. Hori guztia irekitako erregistro-orrian jasoko da, eta horri eutsiko zaio baita etxebizitza hutsik egotearen inskripzio-oharra egiten ez bada ere. Ebazpen bera eta eragin berdinekin emanen da jabetzak, proposatutako sustapen neurriak onartu gabe ere, egiaztatzen duenean etxebizitzari bizileku-erabilera eman zaiola.

Aurrekoa gorabehera, etxebizitza edo etxebizitzaren multzo bera hutsik egoteari buruzko aztarnak berriz egiaztatuz gero artxibatzeko ebazpena eman eta urtebeteko epean, berriz ere hasiera eman ahalko zaio kontradikzio-prozedurari, aurretik sustapen-neurriak eskaini behar izan gabe.

10. Alegazioak aurkezteko epea iraganik eta, kasua bada, egoki diren probak eginik, ebazpen proposamena eginen da, instrukzio-organoak izenpetua, non kasuan kasu onartu diren proben berariazko balorazioa eginen den eta aurkeztutako alegazioen baiespen edo ezespren erabatekoa nahiz partziala ere emanen den. Proposamen hori pertsona interesdunei jakinarazi beharko zaie, proposamen horretan egitate, alegazio, proba edo dokumentu berriak edo interesdunek ezagutzen ez dituztenak kontuan hartzen direnean baino ez.

11. Etxebizitza bat hutsik dagoela deklaratzeko kontradikzio-prozedura ebazteko eta haren ebazpena jakinarazteko gehieneko epea urtebetekoa izanen da, ireki zenetik kontatzen hasita. Hura iraganda, iraungi eginen da. Etxebizitza hutsik dagoela deklaratzeko ebazpena Etxebizitza Hutsen Erregistroari igorriko zaio, inskripzioa egin dezan.

## II. KAPITULUA

### Etxebizitza Hutsen Erregistroa

42. sexies artikulua. Etxebizitza Hutsen Erregistroa

1. Etxebizitza Hutsen Erregistroa sortzen da, foru lege honetan aurreikusitako kasuak gertatzeagatik hustzat deklaratu diren etxebizitzak kontrolatzeko eta jarraitzeko tresna gisa. Erregistro

horretarako sarbidea izanen dute etxebizitzak hutsik daudela deklaratzeko ebazpenek, bai eta huts-egoeran eragina duten jarduketak edo inguruabarrak islatzen dituzten bestelako ebazpenek ere.

2. Etxebizitzen arloko departamentu eskudunak Etxebizitza Hutsen Erregistroa eratzeak berarekin ekarriko du titulartasun publikoko datu-fitxategi bat sortzea, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko araudian aurreikusitako ondorioetarako, betiere horrelako fitxategiak sortzeari buruz Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organiko 20. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

3. Erregelamenduz ezarriko dira idazpen motak, ebazpenak eta inskribatzekoak diren eginutzak, epeak eta idazpenak deuseztatzeko edo erregistro-orriak ezeztatzeko arrazoiak.

## III. KAPITULUA

### Etxebizitza hutsak egon daitezen saihesteko sustapen-jarduketak

42. septies artikulua. Etxebizitzen erabilera soziala sustatzeko politikak eta jarduketak.

1. Foru Komunitateko Administrazioak Etxebizitzen Parke Publiko bat sortuko du, etxebizitza bat eskuratzeko zailtasunak dituzten pertsonen etxebizitzak errentan emateko. Pertsona horiei dauzkaten diru-sarreraren arabera errenta bat exijituko zaie. Parkea honakoek osatuko dute:

a) Desjabetutako etxebizitzek, edo erabilera desjabetu zaien etxebizitzek, foru lege honetan ezarritakoaren arabera.

b) Foru Komunitateak xede horretarako eskura edo susta ditzakeen etxebizitzek.

c) Modu automatikoan, Foru Komunitateko Administrazioaren titulartasunekoak edo erabilera-koak diren etxebizitza guztiek, edozein dela ere arrazoa, beste xederik ez badute.

2. Administrazio publikoek, zuzenean edo entitate publiko instrumentalen bitartez, bitartekari lanak egin ahalko dituzte hutsik dauden etxebizitzaren esparruan, haien okupazioa errazte aldera, jabeen eta etxebizitza eskatzen duten pertsonen edo bizikidetasun-unitateen arteko errentamenduak hitzartzeko formulak sustatzearen eta erraztearen bitartez.

Etxebizitzen errentamenduaren merkaturako bitartekaritza neurri gisa, alokairuko etxebizitza-poltsen programak egin ahalko dira; hitzarmenak egin ahalko dira etxebizitza hutsen jabeak diren pertsona juridikoekin edo fisikoekin, haiek errentamenduaren merkaturan integratzeko; eta erabilgarri

dauden eta prezio egokia duten errentamendu araubideko etxebizitzaren parkea handitzeko beste edozein neurri ere hartu ahalko da.

Erregelamendu bidez ezarriko da zein kalitate-baldintza eta ezaugarri eduki beharko dituzten etxebizitza horiek, bai eta errentamendu-eskatzaileren eta errentariaren ezaugarriak ere; halaber, ezarriko da administrazio eskudunak zein baldintzatan segurtatuko dituen errenten kobrantza bermatzearekin lotutako gorabeherak, defentsa juridikoa eta sortutako kalteen konponketa, hutsik dauden etxebizitzaren jabeen segurtasun juridiko egokia emate aldera.

Halaber, maizterren segurtasun juridikoa bermatze aldera, etxebizitzak administrazio eskudunari eskaini ahalko zaizkio, azken horrek bere kasa nahiz edozein ente publikoren, partaidetza publikoa duten sozietateen, fundazioen eta irabazi asmorik gabeko entitateen bitartez kudea dezan haien errentamendua, honakoak bermatzearen truke: haien mantentzea, etxebizitza-erabilera iraunkor eta egiazkoa emanen zaiela, errenten kobrantza, defentsa juridikoa eta kalteen konponketa. Horretarako, kasuko aseguru polizak kontratatuko dira, ezertan galarazi gabe sektoreko legegian eta etxebizitza planetan eraikuntzari dagokionez aurreikusten diren neurri berariazkoak, jabetza nahiz edukitza modalitateetan.

3. Etxebizitza hutsak errentan emateko programei estaldura egokia ematearen ondorioetarako, administrazio publikoek, sustapen-neurri gisa, etxebizitza horiek bizilekutarako okupatzeari berezko zaizkion arriskuen aseguratzea hitzartu ahalko dute, hartara honakoak bermatzeko: errentaren kobrantza, eragindako kalteak, erantzukizun zibila, etxeko laguntza eta defentsa juridikoa. Foru Komunitateak etxebizitzaren errentamenduaren merkaturatu gaiztatuko dituen bitartekaritza programei dagokienez, erregelamenduzko xedapen baten bidez arautuko dira kasuko aseguru polizak kontratatzeak baldintzak.

4. Foru Komunitateko Administrazioak diru-laguntzak emanen ditu hutsik dauden etxebizitzak egiazki okupatzen laguntzeko, kontuan izanda kontu publikoek ekitaldi bakoitzerako finkatzen dituzten aurrekontuko diru-kopuruak. Diru-laguntza horiek emanen zaizkie jabeen eta errentariei eta bitartekaritza-entitateei. Diru-laguntzak etxebizitza planetan jasotako programen bitartez bideratuko dira. Hori, halere, ez da eragozpena izanen zenbait kasutan diru-laguntza bereziak emateko, interes publikoko, sozialeko, ekonomikoko edo humanitarioko arrazoiak egiaztatzen direnean edo behar bezala justifikatuta dauden bestelako arrazoiak daudenean, deialdiak egitea zailtzen dutenak.

Betiere, aplikatzekoa den araudian ezarritako baldintzak bete beharko dira.

5. Etxebizitzaren titularrek, pertsona fisikoak nahiz juridikoak izan, beren etxebizitzak eskaintzen dituztenean errentamendurako bitartekaritza programa publikoetan sartzeko, honako onurak izanen dituzte:

a) Kasua bada, etxebizitzan egiazki norbait bizi dela justifikatzeko epea eten eginen da, etxebizitza hutsik dagoela deklaratzeko kontradikzio-prozeduraren barruan.

b) Kasuko etxebizitza baldin bada pertsona juridiko batek eskuratua lehengo jabeak hipoteka-kreditu baten ordainean emanda, hipoteka-subrogazioa duen salerosketa baten bitartez edo gisako negozio juridiko baten bidez, errenta jasoko duela bermatuko da etxebizitza hori bitartekaritza programan sartzen den egun beretik. Kasu horietan, etxebizitza hori programan sartu ahalko da maizterrak mantenduz, beraiek hori eskatzen badute.

c) Foru Komunitateko Administrazioak, programaren kudeaketarako ezartzen den organo edo ente instrumentalaren bitartez, errentaren ordainketa bermatuko dio etxebizitzaren titularrari”

**2. artikulua.** Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 52. artikulua honela geratuko da idatzita:

“52. artikulua. Desjabetzeko arrazoiak.

1. Ondoko gertaera hauek nahitaez desjabetzeko bidezko arrazoiak izanen dira, jabetzak egin-kizun soziala ez betetzeagatik:

a) Etxebizitza babestua ohiko bizileku iraunkor gisa egiazki erabiltzeko errekerimendu bati kasurik ez egitea.

b) Etxebizitza babestua ohiko bizileku iraunkor gisa ez erabiltzea urtebetetik gora, baldin eta ez bada lortu okupatu gabe edukitzeko nahitaezkoa den administrazio baimena.

c) Etxebizitza babestua lortzeko eskatutako datuak faltsutzea.

2. Halaber, nahitaez desjabetzeko arrazoitzat jo daiteke jabetzaren eginkizun soziala ez betetzeagatik:

a) Etxebizitza bat hutsik edukitzea, foru lege honen arabera zehatzeko moduko arau-hauste diren kasuetan, eta berariaz emandako epean ez betetzea egoera horri amaiera emateko errekerimendua.



b) Etxebizitza babesturako lursailak urbanizatzeko edo haietan eraikitzeko ezarritako epeak ez betetzea. Epe horiek izanen dira lurra kokatzen diren udalerriko Udal Plan Orokorrean ezartzen direnak, edo horrelakorik ezean, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legean ezarritakoak”

**3. artikulua.** Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 59. artikulua honela geratuko da idatzita:

“59. artikulua. Eginkizunak.

Etxebizitzako ikuskatzaileei eginkizun hauek dagozkie:

a) Foru lege hau, bere garapenerako xedapenak eta, oro har, Nafarroako Foru Komunitatean etxebizitzari buruz aplikatu beharreko araudia betetzen ote diren ikertzea eta egiaztatzea, eta horretarako behar diren neurketa eta froga guztiak egitea.

b) Etxebizitzak hutsik egoteari buruzko aztarnak berriaz egiaztatzea.

c) Indarreko legedia betetzen dela bermatzeko behin-behineko eta behin betiko neurriak hartzeko proposamenak egitea, horren barne direla legez-kotasuna babestu eta berrezartzeko neurri-proposamenak.

d) Zehapen espedienteak irekitzeko eta legez-kotasuna babestu eta berrezartzeko bidezkoak diren neurriak hartzeko proposamenak egitea”

**4. artikulua.** Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 65. artikulua honela geratuko da idatzita:

“65. artikulua. Arau-hauste larriak.

Hauek dira arau-hauste larriak:

1. Etxebizitza babestu bat edo etxebizitzetarako laguntza publikoa lortzeko eskatutako datuak faltsutzea, datuak ezkatutzea edo aitorten faltsuak egitea etxebizitzan egiazki bizitzeari buruz edo etxebizitza babestuaren eskatzaileen zentsuan izena emateko eskaeran, betiere datuak faltsutzeak edo ezkatutzeak edo aitorten faltsua aurkezteak eragin erabakigarria izan badu eman diren administrazio-ebazpenetan, deusetan galarazi gabe etxebizitzaren nahitazeko desjabetzea egitea.

2. Administrazioaren egiaztapen lanak errazteari uko egitea, bidezko arrazoirik gabe.

3. Etxebizitza babestuen salerosketa kontratuak edo jabetzan esleitzekoak ikus-onestera ez eramatea.

4. Etxebizitza babestuen jabetza, haien zati alikuota edo haien gaineko eskubide errealak eskualdatzeko negozio juridikoak egitea aplikagarria den araudian eskatutako betebeharrak bete gabe.

5. Etxebizitza babestu bat errentan ematea aplikagarria den araudian eskatutako betebeharrak betetzen ez dituen norbaiti.

6. Etxebizitza babestuaren behin betiko kalifikazioaren zedulan eranskin gisa agertzen ez den lokal bat etxebizitzarekin batera saltzea edo errentan ematea.

7. Etxebizitza gisa saldu edo errentan ematea bertan bizitzeko baldintza objektiboak betetzen ez dituzten higiezinak edo lokalak.

8. Etxebizitza babestuen salerosketetan gainprezioak edo baimenduta ez dauden diru kopuruak jasotzea.

9. Etxebizitza babestua ohiko bizitoki iraunkor gisa ez erabiltzea ezarritako epeetan, okupatu arte urtebete edo gehiago igarotzen bada.

10. Etxebizitza babestua legez baimendu ezin diren erabileretarako erabiltzea.

11. Okupatzen ari zen etxebizitza babestua okupatu gabe edukitzea administrazio baimenik izan gabe, sei hilabetez edo denbora gehiagoz.

12. Etxebizitza babestua ez okupatzea ezarritako epean.

13. Administrazio eskudunak egindako errekerimenduan ezarritako epean etxebizitza babestua ez desokupatzea.

14. Foru lege honen V. tituluko II. kapituluan etxebizitza babestuak erosi edo errentan emateko aurreikusita dagoen informazioa ez ematea, ezemate horrek kontratuaren funtsezko baldintzen gaineko nahasterik sortzen badu.

15. Etxebizitza babestuetarako nahitazeko aseguruak ez kontratatzea.

16. Etxebizitza babestuen eraikuntzari eta etxegintzari buruzko arau teknikoak edo instalazioei, materialei, produktuei, isolamenduei, suteen kontrako babesari edo bizigarritasunari buruzkoak urratzea.

17. Planeamenduan aurreikusitakoaren arabera, etxebizitza babestuaren kalifikazioa jaso behar lukeen etxebizitza bat halakotzat hartzea galaraztea.

18. Etxebizitza babestuen eraikuntzan atzemandako eta behar bezala frogatutako gabeziengatik edo ezkutuko akatsengatik egiten diren errekerimenduetan ezarritako eginbeharrak ez betetzea, egitez edo ez-egitez, behin betiko kalifikazioaren egunetik hasita hurrengo hiru urteetan salatzen badira eta eraikuntzaren antolamendua-ren oinarritzko legedian aipatzen diren aseguruek estalita ez badaude.

19. Etxebizitza babestuak behin erabiltzaileen esku utzi ondoren, bertan hornidura zerbitzuak (ura, argindarra, saneamendua, berokuntza eta, halakorik bada, igogailua) jartzeko lanak ez erraztea, sustatzaileari egozten ahal zaizkion arrazoiengatik. Horrelakoetan, sustatzaileek beren gain hartuko dute sustapenean parte hartu duten gainerako eraikuntza-agenteen egintzen eta ez-egiteen gaineko erantzukizuna.

20. Etxebizitza babestuetan obrak baimenik gabe egitea, betiere etxebizitzaren azalera erabilgarria handitzen badute edo legeztatzeko aukerarik ez badago.

21. Etxebizitza babestuak esleitzea foru lege honetan ezarritako esleipen prozedura larriki edo behin eta berriz urratuz.

22. Etxebizitza babestuak eraikitzeo obrak onetsitako proiektuan aurreikusitako modua nabarmen aldatuz egitea.

23. Etxebizitza babestuak eraikitzeo obratan aginduzko kalitate-kontrolak ez egitea.

24. Etxebizitza zaintzeko edo zaharberritzeko betebeharrak ez betetzea edo hari bizigarritasun baldintzak kentzea, horri buruzko errekerimendu administratiboari erantzuten ez zaionean.

25. Eraikuntzaren kalitate-kontrolerako entsegu-laborategi gisa edo eraikuntzaren kalitate-kontrolerako entitate gisa aritzea aplikagarria den oinarritzko estatu-legedian eskatutako oinarritzko baldintzak bete gabe.

26. Eraikuntzaren kalitate-kontrolerako entitate gisa aritzen hasi aurreko jakinarazpenean emandako datuen aldaketen berri ez jakinaraztea, edo erantzukizuneko aitopenean sartutako datuenak, eraikuntzaren kalitate-kontrolerako entsegu-laborategien kasuan, jakinarazten ez diren datuak funtsezkotzat jotzen badira jarduera egiteko”

**5. artikulua.** Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 66. artikulua honela geratuko da idatzita:

“66. artikulua. Arau-hauste oso larriak.

Hauek dira arau-hauste oso larriak:

1. Etxebizitzan egiazki ez bizitzea foru lege honetan ezarritako moduan, bi urtez; betiere, etxebizitzaren titularra pertsona juridiko bat denean, eta pertsona juridiko horrek etxebizitzaren jabari osoa badu edota, etxebizitzaren jabekide izanda, partaidetzaren gehiengoaren titularra bada. Arau bera aplikatuko zaie sozietate irregularrei.

2. Eskubide ekonomikoak, babes eskubideak edo bizigarritasun eskubideak jasotzen dituen ebazpen administratibo bat lortzeko behar diren dokumentuak edo ziurtagiriak faltsutzea, arauhausleen edo hirugarren batzuen aldeko egintza bat lortze aldera, exekuzio agindu bat edo interesdunen aldekoa ez den beste egintzaren bat saiheste aldera edo foru lege honetan jasotako sustapen neurriak lortze aldera.

3. Etxebizitza babestuak edo etxebizitzarako laguntza publikoak lortzeko eskatzen diren datuak faltsutzea, datuak sustatzaile batek faltsutu baditu balizko erosle bati edo gehiagori mesede egiteko iruzur bidez, deusetan galarazi gabe esleipenak ofizioz berrikustea, faltsutze hori esleipena egiteko erabakigarria izan baldin bada.

4. Planeamenduan aurreikusitakoaren arabera etxebizitza babestuen kalifikazioa jaso beharko luketen etxebizitza batzuk halakotzat kalifikatzea galaraztea.

5. Eraikuntzari eta etxegintzari buruzko arau teknikoak edo instalazioei, materialei, produktuei, isolamenduei, suteen kontrako babesari edo bizigarritasunari buruzkoak urratzea, urraketa horren ondorioz arrisku larriko egoerak edo osasunaren kalterako egoerak sortu badira.

6. Eraikuntzaren kalitate-kontrolerako entsegu-laborategi gisa edo eraikuntzaren kalitate-kontrolerako erakunde gisa aritzea, lehendik egin gabe behar den erantzukizuneko aitopena edo jakinarazpena, hurrenez hurren”

**6. artikulua.** Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 72. artikulua honela geratuko da idatzita:

“72. artikulua. Etxebizitza hutsei buruzko neurriak

1. Etxebizitzan egiazki ez bizitzeagatik, foru lege honetan ezarritako moduan, egindako arauhauste oso larriarengatik zehapena arauhauste arinetarako ezarritako zenbatekoetara gutxitu ahalko da baldin eta zehatutako pertsonak justifikatzen baldin badu etxebizitzan ez bizi-

tzearen egoerari amaiera eman zaiola zehapen-prozedura amaitu baino lehen, edo hori egiteko konpromisoa hartzen baldin badu zehapen ebazpena irmoa izan eta hiru hilabeteko epean. Interdun batek konpromiso hori idatziz adierazten baldin badu, zehapena betearaztea etenda geratuko da, harik eta beste ebazpen bat ematen den arte, non, konpromisoaren betetzea egiaztatuta, inguruabar hori deklaratu eta zehapena gutxituko den.

2. Foru lege honetan ezarritako moduan etxebizitzari bizitoki-erabilera eman ez eta arauhauste oso larri horrengatik desjabetze-zehapenik ezarri ez denean, entitate titularrari eskatuko zaio egoera horri amaiera emateko beranduenez sei hilabeteko epean, eta ohartaraziko zaio hala egingen ez badu isun hertsagarriak ezarriko zaizkiola edo etxebizitzaren erabileraren desjabetze-prozedura hasi ahalko dela.”

**7. artikulua.** Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legean xedapen gehigarri berri bat eransten da. Testu hau izanen du:

“Hamargarren xedapen gehigarria. Larrialdi sozialeko inguruabar berezietan dauden pertsonen etxebizitza-premiak asetzearen gizarte interesaren deklarazioa, nahitaezko desjabetzearen eraginetarako.

1. Gizarte interesekotzat deklaritzen da larrialdi sozialeko inguruabar berezietan dauden pertsonen etxebizitza-premia asetzea, pertsona horiek hipoteka-exekuzioaren ondoriozko etxegabetze prozeduretan daudenean, eta etxegabetze horren xedea den etxebizitzaren erabileraren nahitaezko desjabetzearen ondorioetarako, gehienez ere bost urteko epe baterako, organo jurisdikzional eskudunak erabakitako kanporatzedatetik kontatzen hasita, edo, kasua bada, kanporatzea eteteari dagokionez azaroaren 15eko 27/2012 Errege Lege-dekretuak ezarritako epea amaitzen denetik.

2. Foru lege hau aplikatuko zaie finantza-entitateek, haien higiezin-filialeak edo haien aktibokudeaketarako entitateek premiatzen dituzten etxegabetze prozeduretan dauden etxebizitzei, etxegabetze horietan errematearen adjudikazio-hartzaileak finantza-entitate bat, finantza-entitateen higiezin-filialeak edo haien aktibokudeaketarako entitateak direnean. Hori guztia, halere, ez da eragozpena izanen Estatuko oinarrizko arauetan ezarritakoa aplikatzeko.

3. Erabileraren desjabetze horren onuradun izan ahalko dira honako baldintzak betetzen dituzten pertsonak:

a) Kasuko pertsonak ohiko bizileku iraunkorra izatea hipoteka-exekuzioaren xede den etxebizitzan, eta horixe izatea jabetzan daukan etxebizitza bakarra, eta hipoteka-exekuzioaren xede den etxebizitzan bizi den familia-unitateko inongo kidek ez izatea inolako etxebizitzaren titulartasunik.

b) Jabe eta hipoteka-zordun izatea, hasierako izaera gisa.

c) Kanporatzeak larrialdi egoera bat edo gizarte bazterketako egoera bat sortu ahal izatea.

d) Baldintza ekonomiko hauek betetzea:

Lehena. Hipoteka-exekuzioaren prozedura izatea pertsonak etxebizitzarako eskubidea gauzatu ahal izateko emandako mailegu bat ez ordaintzearen ondorioa.

Bigarrena. Kasuko pertsonaren egoera ekonomikoak nabarmen behera egin izana, eta horrek gerora ustekabeko zorpetze-egoera bat ekarri izatea hipoteka-mailegua eman zenean zeuden baldintza eta inguruabarren aldean. Ulertuko da egoera ekonomikoak nabarmen behera egin duela hipoteka-zamak familia-errentaren gainean egina-razten duen ahalegina gutxienez ere 1,5 bider handiagoa denean eta horrek familiaren diru-sarrereren heren bat baino gehiago egiten duenean.

Hirugarrena. Familia unitatearen diru-sarrereren gutzitza ez denean Ondorio Askotarako Errenta-adierazle Publikoaren halako hiru baino handiagoa. Familia-unitateak hiru kide dituenean, muga hori 3,25 izanen da; lau kide dituenean, 3,50; eta kide gehiago dituenean, 0,25 gehituko da kide horietako bakoitzeko.

4. Etxebizitzaren erabileraren aldi baterako desjabetzearen prozedura lotu beharko zaio nahitaezko desjabetzeari buruzko legedian ezarritakoari eta, kasua bada, aplikatzekoa den legedia sektorialean ezarritakoari. Prozedurari hasiera emanen dion ebazpena jakinaraziko zaio kasuko hipoteka-exekuzioaren prozeduraz arduratzen ari den organo judizialari.

5. Etxebizitzaren arloko kontseilari eskudunaren foru agindu baten bitartez, informazio publikoa eman ez eta arrazoiak azalduz, okupazioaren gizarte interesa eta beharra deklaratuko dira, etxebizitzaren erabileraren aldi baterako nahitaezko desjabetzearen eraginetarako.

6. Argitaratze-iragarkiak alde aurreko akta egiteko zitazioa ere jaso ahalko du.

7. Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legeko 52. artikulua ondo-ondorioetarako, okupazio urgentekotzat jotzen da foru lege honetan aurreikusitako desjabetzea.

8. Okupazio-aktan ezarriko da jabetzak nola berreskuratuko duen etxebizitzaren erabilera, behin erabileraren aldi baterako desjabetze-epa iragan denean. Bereziki, atzera egiteko eskubidea aitortuko da inguruabarrak aldatzen baldin badira 1. idatz-zatian ezarritako hiru urteak iragan aurretik, halako moduz non etxebizitza duin eta egoki baterako eskubidea bete ahal izanen baitu, hipoteka-exekuzioko prozeduraren xede izan zen etxebizitzak ahalbidetzen duenaren antzeko moduan. Halaber, atzera egiteko arrazoia izanen da onuradunaren izaera galtzea.

9. Onuradunak desjabetzearen egilea den Administrazioari kopuru bat ordaindu beharko dio balio justuaren ordainketarako ekarpen moduan. Kopuru hori ez da izanen etxebizitza horretan bizi den familia-unitatearen diru-sarreraren ehuneko 25 baino handiagoa, ez eta balio justutik gorakoa ere.

10. Onuradunak 3. idatz-zatian jasotako baldintzak betetzerakoan edo 11. idatz-zatian aipatzen den dokumentazioa aurkezterakoan informazio faltsua ematen badu edo informazioa ezkututzen badu, onuradun izaera galduko du. Etxebizitzaren arloko departamentu eskudunak begiratuko du aipatutako baldintzak betetzen direla eta aurreko idatz-zatian ezarritako moduan onuradun gisa ordaindu behar dituen diru-kopuruak ordaintzen dituela.

11. Nahitaezko desjabetzearen prozedurari hasiera emateko, interesdunak, berriaz egindako eskariak eta bere etxebizitzaren hipoteka-exekuzioko prozesuaren egiaztagiriez gainera, honako dokumentazioa aurkeztu beharko du:

a) Interesdunaren egoera ekonomikoari buruzko egiaztagiria:

Lehena. Errentari buruzko ziurtagiria eta, kasua bada, Ondarearen gaineko Zergaren aitorpena aurkeztu izateari buruzko ziurtagiria, azkeneko lau zerga-ekitaldiei buruzkoa, eskudun den tributu-erakundeak emana.

Bigarrena. Jasotako azken hiru nominak.

Hirugarrena. Prestazioen entitate kudeatzaileak emandako ziurtagiria, non langabeziarengatik prestazio edo laguntzen kontzeptuan jasotako hileko zenbatekoa agertuko baita.

Laugarrena. Ordainsari sozialen, gizarteratzeko gutxieneko errenten edo Foru Komunitateko Administrazioak edo, kasua bada, beste autonomia erkidego edo toki entitate batek emandako antzeko gizarte laguntzen egiaztagiria.

Bosgarrena. Bere konturako langilearen kasuan, tributu-erakunde eskudunak emandako

ziurtagiria aurkeztuko da edo, jarduera eteteagatik prestaziorik jasotzen ari bada, haren ziurtagiria, organo kudeatzaileak emana, non hilerok jasotzen duen zenbatekoa jasoko baita.

Seigarrena. Aurreko zenbakietan aipatutako dokumentazioa aurkeztu ordez, interesduna mugatu ahalko da Administrazio jarduleari baime-na ematera, datu fiskalak eta gizarte segurantzakoak erregistro eta administrazio eskudunetan kontsultatzea.

b) Familia unitateko kideek izandako diru-sarreraren egiaztagiria, onuradunarentzat ezarritako moduan.

c) Etxebizitzan bizi diren pertsonen kopuruari buruzko egiaztagiria:

Lehena. Familia-liburua edo izatezko bikote gisa izena eman dutela adierazten duen egiaztagiria.

Bigarrena. Etxebizitzan erroldatutako pertsonen erroldatze-agiria, egiaztagiria aurkezteko uneari eta aurreko sei hilabeteei erreferentzia eginda.

d) Ondasunen titulartasuna:

Lehena. Jabetzaren Erregistroak emandako titulartasun-ziurtagiriak, familia unitateko kide bakoitzari buruzkoak edo, bestela, erantzukizuneko aitorpena eta Administrazio jarduleari emandako kontsulta-baimena, datu katastralak eta Jabetzaren Erregistrokoak eskatu ahal ditzan.

Bigarrena. Etxebizitzaren salerosketa-eskriturak eta hipoteka-bermearen eraketari dagozkionak, bai eta eraturako gainerako ondasun-bermeak edo berme pertsonalak, halakorik badago, frogatzen dituzten beste agiria ere.

e) Zordunaren edo zordunen erantzukizuneko aitorpena, foru lege honen aplikazio esparruaren barruan dagoela edo daudela jotzeko exijitzen diren baldintzak betetzeari buruzkoa.

f) Gizarte zerbitzuen txostena, onuraduna etxetik kanporatuz gero geratuko litzatekeen larrialdiko edo gizarte bazterketako egoerari buruzkoa.

12. Eskabideak hasiera-hurrenkera zorrotzaren arabera izapidetuko dira, salbu eta, ahultasun bereziko kasuetan edo kanporatzea berehala gertatu behar denean, bestelako lehentasun-hurrenkera ezartzen duen ebazpen arrazoitua ematen denean. Ebazpen hori jasota geratuko da.

Aurreko lerroketan ezarritakoaren ondorioetarako, ulertuko da ahultasun bereziko egoera bat dagoela kanporatzeak eragina duenean adingabeak, mendetasuna duten adineko pertsonak, ezgai-

tuak, generoko indarkeriaren biktima izan diren pertsonak edo prestaziorako eskubiderik ez duten langabetuak dituzten familiengan.

Kasu horietan eta antzeko egoeretan, izapidez lehenetsuneko toki bat emanen zaie nolabaiteko babes publikoko araubide baten menpeko etxebizitza daukaten pertsonen.

13. Etxebizitzaren okupazioa ezin bada egin etxegabetze prozedurarekin lotutako arrazoiengatik edo Administrazioari ezin egotz dakizkiokeen bestelako arrazoiengatik, horrek ez du berarekin ekarriko desjabetzearen onuradunari inongo eskubiderik aitortzea.

14. Nolanahi ere, xedapen honetan ezarritakoa aurrekontuetan dagoen diruaren arabera izanen da.

15. Xedapen honetan ezarritakoa hipoteka-exekuzioko prozesu judizialei edo estrajudizialei aplikatuko zaie, foru lege honek indarra hartu aurretik hasitako, baldin eta haietan ez bada kanporatzerik exekutatu edo kanporatzea egin bada hark indarra hartu ondoren, baina etxebizitza hutsik egonda”.

**8. artikulua.** Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legean xedapen gehigarri berri bat eransten da. Testu hau izanen du:

“Hamaikagarren xedapen gehigarria. Etxebizitza babestuak ordainean ematea.

Salbuespen bezala, etxebizitza babestuen titularrak izan ahalko dira pertsona juridikoak etxebizitza horiek eskuratu dituztenak lehengo jabeak hipoteka-kreditu baten ordainetan emanda, hipoteka-subrogazioa duen salerosketa baten bitartez edo gisako negozio juridiko baten bidez. Titular horiek foru lege honetan ezarritako betebeharrak izanen dituzte, etxebizitza horiek eskualdatzeari edo errentan emateari dagokienez”.

**Xedapen iragankorra.** Finantza-entitateek, haien higiezin-filialek eta aktiboen kudeaketarako entitateek etxebizitza babestuei buruzko komunikazioak egiteko betebeharra.

Foru lege honek indarra hartzen duenetik hila-beteko epean, finantza-entitateek, haien higiezin-filialek eta aktiboen kudeaketarako entitateek –banku-berregituratzetik heldu diren aktiboak barne–, etxebizitzaren arloko departamentu eskudunari jakinarazi beharko diote beren balantzean sartzen diren eta Foru Komunitatearen lurraldean dauden etxebizitza babestuen inbentarioa, adierazita non dauden, zein prezio eta erosketa-data duten eta zein egoera administratibotan dauden. Hori guztia, datuak babesteari buruzko arauetan eta Estatu-ko oinarrizko arauetan ezarritakoak betez.

**Xedapen indargabetzaile bakarra.** Arau-indargabetzea.

Foru lege honen aurka doazen lege-nahiz erregelamendu-xedapen guztiak indarrrik gabe gelditzen dira.

**Azken xedapenetan lehena.** Erregelamendu bidezko garapena.

Nafarroako Gobernuak foru lege honek ezarritakoak aplikatu eta garatzeko beharrezkoak diren erregelamenduzko xedapenak emanen ditu. Betiere, beharrezkoak diren erregelamenduzko xedapenak emanen ditu Etxebizitza Hutsen Erregistroa abian jartzeko, foru lege honek indarra hartu eta sei hilabeteko epean.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Etxebizitzek hutsik iraun duten epeen kontaketa.

Etxebizitzek hutsik iraun duten epeak, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legeko 42. bis artikulua aurreikusitakoak, foru lege honek indarra hartzen duenetik hasiko dira kontaktzen.

**Azken xedapenetan hirugarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

## **Foru Legea, erosahaltenaren galera dela-eta 2012rako eraginarekin aldi baterako osagarri pertsonal bat sortzen duen abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legea aldatzen duena.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2013ko ekainaren 27an egindako Osoko Bilkuran, erosahaltenaren galera dela-eta 2012rako eraginarekin aldi baterako osagarri pertsonal bat sortzen duen abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2013ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **Foru Legea, erosahaltenaren galera dela-eta 2012rako eraginarekin aldi baterako osagarri pertsonal bat sortzen duen abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legea aldatzen duena**

#### ZIOEN AZALPENA

2012ko abenduaren 20an Nafarroako Parlamentuak Erosahaltenaren galera dela-eta 2012rako eraginarekin aldi baterako osagarri pertsonal bat sortzen duen abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legea onetsi zuen. Lege horrek ezartzen du Nafarroako administrazio publikoek aipatu osagarria ordainduko dutela, 2012ko uztailaren jaso zen aparteko pagaren antzeko zenbatekoarekin. Nafarroako toki administrazio batzuetan, bete zuten lege hori, 2012ko abenduan zenbaitetan, eta beste zenbaitetan, administrazio-atzerapen ulergarriengatik, 2013ko urtarrilean, baina 2012ko aurrekontuaren kontura.

Espainiako Gobernuak Nafarroan duen ordezkartzak, joan den martxoan, toki entitate ba-

tzuen aurkako errekurtsua aurkeztu zuen Nafarroako Administrazio Auzitegiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, argudio hartuta, besteak beste, aipatu foru legeak aurreikusten zuela ordainsaria 2012ko abenduaren 31 baino lehen ordainduko zela, eta, beraz, ezin zela geroago ordaindu.

Gutziz agerikoa da Nafarroako Parlamentuaren asmoa beti izan dela aldi baterako osagarria jasotzea, administrazio atzerapenak gorabehera. Beraz, administrazioek ordainketa aipatu eguna baino geroago egitea erabaki badute, horrek ez du oztopo izan behar osagarria jasotzeko. Foru lege hori aplikatuz Nafarroako toki entitate batzuek egin dituzten ordainketen segurtasun juridikoa bermatzeko, bidezko da aldatzea bere artikulua bakarren bigarren puntua, betetzeko epeak aipatzen dituenak.

Foru lege honek dakarren aldaketak, halaber, aldi baterako osagarri pertsonala ordaintzeko bidea ematen die Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta bere garaian osagarria ordaindu ez zuen Nafarroako beste edozein administrazio publikori.

**Artikulu bakarra.** Erosahaltenaren galera dela-eta 2012rako eraginarekin aldi baterako osagarri pertsonal bat sortzen duen abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legeko 2. artikulua aldatzen da. Hona testu berria:

“2. Ordainsaria 2013ko abuztuaren 31 baino lehen ordainduko da, ordainketa bakarrean, eta funtzionario bakoitzari aurreko idatz-zatian ezarritakoarekin bat dagokion zenbatekoa ordainduko zaio”.

**Azken xedapena.** Aldaketa honek 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

## **Foru Legea, Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen ehuneko 0,7 arautzen duen ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legea aldatzen duena.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2013ko ekainaren 27an egindako Osoko Bilkuran, Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen ehuneko 0,7 arautzen duen ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2013ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **Foru Legea, Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen ehuneko 0,7 arautzen duen ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legea aldatzen duena**

#### ZIOEN AZALPENA

Ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legeak arautzen du Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen ehuneko 0,7aren esleipena.

Arau horretan, geroago, aldaketak egin dira, baina zuzendu gabe gelditu dira legearen garapenean agertu diren akats batzuk.

Foru lege honen helburua da tributuen 0,7 horren kudeaketa hobea eta eraginkorragoa lortzen laguntzea, errenta aitorpenean gizarte-xedeen laukitxoa markatzen duten nafar herritarren borondatea betetzea, Nafarroako gizarte entitateen lana ahalbidetzea eta tresna eraginkorra eta osagarria izatea Nafarroako pobrezia eta gizarte bazterketaren aurkako borrokan eta gizarte-intereseko bestelako xede batzuetan.

#### **Artikulu bakarra.**

Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen ehuneko 0,7 arautzen duen ekainaren

5eko 7/2009 Foru Legearen manu hauek honela geratuko dira idatzita:

Bat. Artikulu bat gehitzen da, 4. bis artikulua:

“4. bis artikulua.

1. Hiru hilabeteko epean, urteko errenta kanpaina bukatu eta gero, gizarte entitateentzako diru-laguntzetarako deialdiak onetsiko dira. Aipatu deialdiak urtea bukatu baino lehen ebatziko dira, hurrengo urteko urtarriletik aurrera bete ahal izan daitezten.

Aldez aurretik, Nafarroako Gobernuak eta gizarte entitateek adostuak izanen dituzte zeintzuk izanen diren deialdi horien bidez diru-laguntzak jaso behar dituzten jarduera-ildo nagusiak; deialdi horiek Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseiluari eta Nafarroako Ingurumen arloko Kontseiluari igorriko zaizkie, horien berri izan eta onets ditzaten.

2. Tributuen ehuneko 0,7aren esleipenetik sortzen diren zenbatekoak lehia libreko deialdietan sartuko dira, eta ez dira erabiliko kontusail izendunetan.”

Bi. 6. artikulua aldatzen da. Hemendik aurrera, testu hau izanen du:

“6. artikulua.

1. Hirugarren artikuluko 2 eta 4 jarduera-multzoek bost urteko indarraldia izanen dute, kontuan hartuta horien xedea dela egoera ekonomikoaren araberrako arreta koiunturala eta Autonomia Pertsonalaren Legearen abiarazpena eta hasierako garapena.

2. 2014ko ekitalditik aurrera, foru lege honek arautzen duen funtsaren onuradun diren jarduera-multzoak berrikusi egingen dira. Jarduera-multzo berriak foru aginduz onetsiko dira, aldez aurretik Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseiluak aldeko irizpena emanda. Foru agindua onetsiko da funtsaren zenbatekoaren argitaratze-data baino lehenago.”

**Azken xedapena.** Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean berean hartuko du indarra.

## **Foru Legea, Murillo el Frutoko Udalaren 159.224 metro koadroko herrilurraren desafektazioaren onura publikoa adierazi eta hura onesten duen ekainaren 24ko 7/2004 Foru Legea aldatzen duena.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2013ko ekainaren 27an egindako Osoko Bilkuran, Murillo el Frutoko Udalaren 159.224 metro koadroko herrilurraren desafektazioaren onura publikoa adierazi eta hura onesten duen ekainaren 24ko 7/2004 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2013ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Foru Legea, Murillo el Frutoko Udalaren 159.224 metro koadroko herrilurraren desafektazioaren onura publikoa adierazi eta hura onesten duen ekainaren 24ko 7/2004 Foru Legea aldatzen duena**

### **ZIOEN AZALPENA**

Ekainaren 24ko 7/2004 Foru Legeak herrilurretako 159.224 metro koadroren desafektazioa onetsi zuen, geroago Indugarbi S.L. enpresari saldu eta hark hondakinak berreskuratu eta balioztatzeko industria-gune bat eraiki zezan.

Legean honako baldintza hau ezarri zen, besteak beste:

“c) Murillo el Frutoko Udalak bere konpromisoa bete eta desafektaturiko lurak saltzean lorturiko dirua erabil dezala alor berriak erosteko; alor horiek herrilurretan sartuko dira.”

Foru lege honekin nahi dena da herrilur horien salmentaren bidez lortutako zenbatekoa, 243.787 euro, erabiltzea Nafarroako Ubideko X. sektoreko herrilur ureztagarrietako lehorreko lurak ureztalur bihurtzeak eraginaren zituen gastuak finantzatzeko, eta ez laborantzako beste alor erabilgarri batzuk eskuratu eta horiek gero herrilurren ondarean sartzeko.

### **Artikulu bakarra.**

Murillo el Frutoko Udalaren 159.224 metro koadroko herrilurraren desafektazioaren onura publikoa adierazi eta hura onesten duen ekainaren 24ko 7/2004 Foru Legeko 2. artikuluko c) letra aldatzen da. Hemendik aurrera, testu hau izanen du:

“c) Murillo el Frutoko Udalak desafektaturiko lurak saltzean lorturiko dirua erabil dezala Nafarroako Ubideko X. sektoreko herrilur ureztagarrietako lehorreko lurak ureztalur bihurtzeko.”

**Azken xedapen bakarra.** Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.



**Foru Lege proposamena, Nafarroako Administrazio Publikoetan funtzionarizazio prozesu berri bat abian jartzeari buruzko Foru Legea aldatzen duena.**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Legebiltzarrak, 2013ko ekainaren 27an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen bazter uztea Nafarroako Administrazio Publikoetan funtzionarizazio prozesu berri bat abian jartzeari buruzko Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena.

Agintzen da erabaki hori argitara dadin, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 114.1 artikulua xedatutakoa betez.

Iruñean, 2013ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 132. artikulua eta II. tituluko VIII. kapituluak aldatzen dituenak.**

*OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA*

Legebiltzarrak, 2013ko ekainaren 27an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 132. artikulua eta II. tituluko VIII. kapituluak aldatzen dituen Foru Lege proposamena aintzat hartzea. Proposamen hori Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-

Ezkerra parlamentu-taldeek eta Patxi Leuzá García jaunak aurkeztu zuten, eta 2013ko ekainaren 11ko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Foru Lege proposamena, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legea partzialki aldatzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko uztailaren 1ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobezeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztu dute Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legea partzialki aldatzen duen Foru Lege proposamena, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

**1.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legea partzialki aldatzen duen Foru Lege proposamena.

**2.** Foru lege proposamen hori presako prozeduraz eta irakurketa bakarrean izapidetzea. Egungo bilkuraldiarteko garaian egin beharreko Osoko Bilkura berezi batean eztabaidatuko da.

**3.** Egungo bilkuraldiarteko garaian behar diren egunak gaitzea Nafarroako Gobernuak bere iritzia eman dezan aipatu Foru Lege proposamena aintzat hartzeari buruz eta Legebiltzarreko Osoko Bilkura izapidetu dadin.

**4.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi eguneko dela.

**5.** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, zeina bukatuko baita eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren aurreko egunaren eguerdiko hamabietan. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2013ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legea partzialki aldatzen duen Foru Lege proposamena**

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legearen bidez, erakunde hori sortu zen, Nafarroako Foru Komunitateko sozietate publikoen eraginkortasuna eta efizientzia arrazionalizatu, koordinatu eta optimizatzeko antolatze- eta kontrol-tresna bateratu eta berariazko gisa. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren Administrazio Kontseiluak, 2013ko maiatzaren 13an, Sektore Publikoa Berregituratzeko II. Plana onetsi zuen. Plan horrek, besteak beste, berarekin dakar sektore horren egitura gutxitzea, 13 enpresa izatetik 8 enpresa izateraino, aktiboak saltzea eta plantillak berregituratzea aurre-erretiroen, lansari-gutxitzeen eta kaleratzeen bitartez, hartara soldata-masa % 15 eta % 20 bitarte gutxituz.

Enpresen sektore publikoak garrantzi handia du jarduera ekonomikoaren dinamizatzailerako gisa eta lanpostu-sortzailerako gisa, eta estrategikoa da Nafarroaren garapenerako; gainera, hura Berregituratzeko II. Planean jasotako neurriek eragin larria izan dezakete. Hori dela eta, gomendatzen da Nafarroako Parlamentuak parte-hartze handiagoa izatea plantillak berregituratzeko eta doitzeko prozesuetan.

### **Artikulu bakarra.**

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legeko 12. artikulua aldatzen da. Honako testua izanen du:

“12. artikulua. Parlamentuaren kontrola.

1. Nafarroako Parlamentuak aurrez baimena eman beharko du honako eragiketarako egiteko:

a) Sozietate publikoetako partaidetzak Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa edo Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa osatzen dutenez beste pertsona batzuei eskualdatzea edo besterentzea.

b) Sozietate publikoaren izaera galtzea dakarten fusio, zatitze, eraldatze, desegite, likidazio eta beste edozein berregituratze-eragiketarako.

c) Enplegu erregulazioko espedienteak eta plantillak berregituratzeko planak, sozietate publiko baten langileen ehuneko hamarri baino gehiagori eragiten diotenak.

2. Aurreko idatz-zatian ezarritako baimena Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoko organoek eskatuko dute, Nafarroako Gobernuako lehendakariaren bitartez.

3. Administrazio Kontseiluko lehendakariak, zuzendari nagusiarekin, gutxienez ere urtean behin egingen du agerraldia Nafarroako Parlamentuko Ekonomia Batzordean, urteko aurreikuspenei buruz eta kasuko ekitaldian eginiko kudeaketari buruz informatzeko. Korporazioa osatzen duten sozietateei buruz ere informatuko du. Lehendakariak Korporazioko zuzendari nagusia izendatzen edo ordeztzen denean ere egingen du agerraldia.

4. Administrazio Kontseiluko lehendakariak, zuzendari nagusiak eta Korporazioa osatzen duten zuzendari nagusiek edo kudeatzaileek agerraldia egingen dute Nafarroako Parlamentuan, eskatzen zaien guztietan, Nafarroako Gobernuko

kideen betebeharrak berbera izanzen baitute, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, informazioa emate aldera jardueri, funtzionamenduari, egiturari eta eskatzen zaien beste edozein inguruabarri buruz”

#### **Xedapen iragankorra.**

1. Foru lege honetan ezarritakoaren indarrez Nafarroako Parlamentuak aurrez baimena ematea beharrezkoa duten eragiketek, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera erabaki direnek edo erabakitzen hasi direnek, Nafarroako Parlamentuaren baimena beharko dute, kasu guztietan, prozedura berari jarraituz.

2. Betiere, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren Administrazio Kontseiluak Sektore Publikoa Berregituratzeko II. Plana igorri beharko dio Nafarroako Parlamentuari, eztabaidatu eta onetsi dezan.

**Azken xedapena.** Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

